

Arrasate

P R E S S

1996ko
Urriak 18
336. zenb.

Gesallbarko
balmuetxea:
1825. urtean
aralditako
arabuntza.



Santa Agedako ospitala monumentu izendatua

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean, merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!

LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!



SIRIMIRI
jantzidenda

Denda berria

Zatoz udazkeneko moda ezagutzera



LEHEN Iturriotz kalean... **ORAIN** Erdiko kalean

Erdiko kale, 42. Tfnoa. 79 64 42 • Arrasate

Biharamuna duen munduarekin ametsetan

Egun gutxi generaman Guatemala hiriburuan. Larunbata zen. Flor de Maria eta Florildamak beraien etxeetara gonbidatu gintuzten. Gau itxia zen eta euria ari zuen... Zein goibela den euriaren hotsa kartoizko sabaietan... Zein goibel bizi den nire jendea kartoizko etxeetan... hala dio kantuak... hala entzuten nuen ametsetan... Izarak garbi, lurrezko zoria... duintasuna eta errekurtsio falta banaezinik... Tinko entzuten zen euria kartoi eta plastikoaren aurkako erasoan... Emakumeak bakarrik borrokan... ezkongabeak... alargunak... inoiz eduki gabeko eskubideen atzetik sendo, gogor. Kantuak zera dio... gaur atzo bezalakoa da, biharamunik gabeko mundua... Emakume hauek, berriz, biharamuna dute amets, biharamuna dute itxaropen. Emakume haren ondoan etzanik, sabaira begira, bonbilarik gabeko iluntasunean, leihorik gabeko itxitasunean, bost metro karratutan senti daitekeen estutasunean... oporrak zilegiztatzen zizkidan lanean pentsatu nuen, nire etxeko pareta eta zoru estali eta txukunetan pentsatu nuen, berogailuetan pentsatu nuen, gure paraten segurtasunean pentsatu nuen, "lehenengo mundukoon" prepotentzia pentsatu nuen.

Zer egiten nuen nik han? Nik ezin nuen ezer egin asentamendu hartan zeuden hamaika mila lagunuen egoera goxatzeko. Ezin nuen ezer egin hiriburuan dauden mila eta zortziehun asentamentuetako milaka eta milaka lagunuen egoera arintzeko, ezta beraien txabolak amildegietan dituztenei beste ezer eskaintzeko ere. Beraien gonbidapen lagunkoia onartu eta kontatu nahi ziguten guztiaren berri jaso baino ezin nuen egin.

Bota nahi dituztela, errepidetik ametraitlatu

zituztela, bonba bat jarri zietela, jende asko mehatxatuta dagoela, gobernuak asko estutzen dituela eta lur horiek erosteko elkarrizketak presioz beteta daudela kontatu ziguten arratsalde horretan. Begi tristedun haurrak ikusi genituen, lotsaz eta jakinminez nahasturik ihesi zihoazen eta hurbiltzen zitzaizkigun haurrak, banda eta drogen arriskutik hurbilegi bizi diren haurrak, herri honen gaitz endemiko bihurtu den aita alkoholiko ugariaren mende bizi diren haurrak. Kantuak zera dio: ...nire lurraren kolore berekoak dira haurrak, eta lurraren orbain berberak dituzte... Ezin ahaztu haur horien irrifarre goxoa, irrifarre samina. Lanean dituzten baldintzez ere hitzegin ziguten. Gehienak, batez ere neska gazteak, makiletako langileak dira: "makila" k, kamisetak, frakak etab. antolatzeke kateak dira. Horien jabeak, korearrak, eta lan-baldintzak, negargarriak: soldata oso kaxkarrak, erasoak, bortxaketak, ordu gehiago lan egin dezaten pastilak hartzeko beharkizuna... zein goibel bizi diren haurrak kartoizko etxeetan... eta ...zein urrun igarotzen den itxaropena kartoizko etxeetan.... Halere, ez dute hemendik joateko asmorrik. Beste toki batzutatik etorri diren hauek, non bizi ez zuten hauek edo inoiz ezereen jabegoa edukitzeko aukerarik izan ez duten hauek, "beraien" etxean defendatuko dituzte, konstituzioak hitzematzen duen baina gobernuak zilegiztatzen ez dituen etxea eta bizimodu duin bat exigitzen jarraituko dute. Gau horretan, nire ametsa biharamuna duen mundu batekin amesten duten emakumeen ametsarekin nahastu zen...

KARMELE PEREZ



TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Memesa

79 42 22




ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopli, Daniel Goikolea, Amaia Marliartu, Maite Martinez, Iban Astorri, Haritz Larriaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubizarreta, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozata-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



Azalaren egilea: Goio Arana.

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

UDALATX (ETA SANTAAGEDATX)

Diodan aurretik, ez nator polemikaren bila, baina oso gustura irakurriko nuke nire usteen kontrako zerbait, arrazoizkoa izanik behintzat. Bestalde, aspalditxo pentsatu nuen hobe nuela honelako kontuez gehiago ez idaztea; izan ere, ia inortxok ere ez baitio pito kasurik egiten honelakoei (beraz, zertako denbora alferrik galdu, horren altxor preziatua izanik gainera). Baina, guztia-ekin ere, zuzentasunak eta txukuntasunak ez dut uste inoiz kalterik dakartenik.

Maritxu Kajoi eguneko ARRASATE PRESSEN atsegin handiz irakurri nuen *Agenda* atalean arrasatearrontzat hain inportantea den mendia-riaren izena zuzen idatzita ("Udalatx gurutzea jarri zela... Udalatx tontorrean... Udalatxi buruzko diapositiba emanaldia..."), baina, tamalez, oso gutxi irau- zuen ameskeria bat besterik ez zen izan. Azken alean, urriaren 11koan, 30 baino gehiago bider aipatzen da gure mendi maite hori (ez baitira alferrik pasatu 25 urte 70en bat gizon jator eta ausartek gurutzea jarri zute- la, Mainer Egüesek ondo asko kontatzen digun bezala) eta guzti-guztietan Uda- laitz idatzita. Zer pasatu da aste betean, aurreko *Agenda* idatzi zuenak baja har- tu duela, edo zuzentzailez- baldin badago- aldatu duze- la? Ez deritzat oso serioa.

Bestalde, ale bereko 12. orrialdean, Gesalibarren tele- bista kate guztiak ikusteko (mutillak!! ordua zoan!!) jarriko den errepikagailua babesteko "txabolatxo" bi eraikiko direla esaten da. Non eraikiko eta usain txar- ra duen "Santats (Santa + (h)ats-etik ete?) mendian al-

txatuko ei dira "txabolatxo- ak". Bidenabar, jakin ezazue mendi hori, bere txikian, gesalibartarrontzat Udalatx mondragoetarrontzat bezain mitikoa eta maitatua dela. Baina "Santats" ez da bere izena (imajinatu "Udalats", la respiración o el hedor de Udala), Santaatx edo Santaagedatx baino (duela 200 urte "Santa Agueda acha (c)"). Ehundaka urtetan Uda- latx izan dena euskal sena- ren eta Euskaltzaindiaren eta Aita Santuaren esanen aurka Udalaitz bihurtu gura da, baina -eta a ze parado- xa!- inori ez litzaioke otuko gure menditxo Santaaitz edo Santaagedaitz izenda- tzea.

Seguru nago arrasatear mendizale prestuak Federa- kundeak ateratako Euskal Herriko Mendien Katalo- goa ezagutuko duela, eta han ikusiko duela Udalatx zuzen idatzita, Bizkaiko Alti- pitatx, Axkorrigian, Atxon- do, Untzillatx edo Urreko- atxa bezala.

Agur bero bat.

Txiipi Ormaetxea

JAN DA LO

Benetan, hunkitu egin nintzen. Baliteke izate- a protagonistetari- ko batzuk oso hurbilekoak izateagatik, baina hala izan- da ere, joan den larunbate- an Amaia antzokian ikusi nuen omenaldiak neurri bate- an oilo larruaz jantzi nin-

duen.

Doa, beraz hemendik ber- tatik nire eskerrik eta zorio- nik beroena Udalatxeko gurutzearen kokapenaren 25. urteurrenaren ospakizuna errealitate bihurtu duten guz- tien.

Ziur nago Amaia antzo- kian burutu ziren ekintzak burutu ahala, han geundenon askoren barrutik pasa zirela Udalatx inguruko 25 urte hauetako oroitzapen ugari, batez ere Jan da lo taldeko partaideen barrutik. Eta segu- ruenez, oroitzapen horieta- ko askok zerikusia izango zuten zoritxarrez ikuskizu- naz gozatzeko aukerarik ez zeukaten lagunekin. Euren- dako berdin berdin gure eske- rrona eta oroitzapena.

Amaia antzokiko ikus- kizunera itzuliz, onartu beha- rra dut programatutako hiru ekintzak apartekoak izan zirela. Goikobaluren eta Arrasate Musikalen lana, Lore Gazteak taldearen aktuazioa (zein bikaina Uda- la Mendi dantzaren estre- nua), ASA taldearen ikuski- zunaren bezala maila han- dikoak izan ziren.

Zorte handia dugu herri honetan, honelako kultur ekintzetan ezeren truke parte hartzen duen jendea iza- teagatik. Eta hori gaur egun. Eskerrik asko.

Ikuskizuna bukatu zene- an eta denon artean Udala Mendi abestu genuenean, "jan da lo" ozen ohikatu ez ohikatu egon nintzen, baina ez nintzen ausartu. Segu- ruen ez naiz hiru hitz eder horietan dagoen mezua eta sentimendua adierazteko pertsonarik egokiena izango, eta gainera uste nuen ger- tuagokoren batek egingo zue- la. Gertatu ezenez, orain sekula baino gehiago oihi egiteko gogoia daukat

Jan da looooooooo!!!

Jose M. Balzategi

ESPALOI OKERRAK

ARRASATE PRESSEK eskaintzen didan aukera aprobetxatuz, lerro hauek idatzi nahi ditut euria egiten duenean oinez- ko honek jasaten dituen bizi- kizunak kontatu nahi ditut. Egia esan gozada bat da Mugarritik kiroldegiraino joan ahal izatea lasai lasai paseatuz, beste herri askotan egin ahal izango ez den gau- za uste dut. Baina egia da ere espaloi batzuetan baldosak solte daudela eta euria egiten duenean Zarugaldetik poliki- roldegira arteko paseo lasaia benetako martirio batean bihur daitekeela, baldosak zapaltzerakoan sortzen diren zipriztinak (ez dakit nik horiek zapaltzeko aparteko trebeta- suna dudan edo asko dago- en) zikin zikin eginda uzten zaituzte.

Herri honetan egiten diren obrak oso inportanteak dira eta baita beharrezkoak ere ordaintzen dugunon bizitza hobetzeko, baina behin egi- nez gero kontrolatu egin beharko litzateke dena ondo egon zedin, ez dagigula ger- ta Egipton piramideekin ger- tatu zena.

Beste barik, agur bat.

Merche Exposito

ESKERRONEZ

Udalatxko gurutze- ren 25. urteurrena dela eta antolatutako diren ekintzetan parte hartu duzuen guztioi eskerrak ema- tera gatoz, Besaideko Uda- latx zaleok, bereziki, ekint- zen antolaketa eta ekintze- tan parte hartu duzuen guz- tioi, zuek gabe ezinezkoa izango zen eta.

Besaide Mendizale
Elkartea

Joaten zara euskararen aldeko ekintzetara?



Iart Aginagalde
Ikaslea
(18 urte)

Ez dut sekula parte hartu baina asko gustatuko litzaidake Kilometroak eta horrelako jaietara joatea. Jendeak oso ondo pasatzen duela esaten dit baina ez naiz inoiz joan.



Iosu Garai
Ikaslea
(27 urte)

Azkenaldian ez, baina oso gustoko ditut. Kilometroak eta Nafarroa Oinez-etan egon izan naiz. Euskaldunok elkartzen garen lekua da, ideia politikoak alde batera utzita.



Florencio Oianguren
Jubilatua
(72 urte)

Parte hartu izan dut. Legazpiko Kilometroak-en egon nintzen eta baita noiz edo noiz Nafarroa Oinez-en ere. Orain erreumagatik ez naiz hainbeste joaten baina laguntza bidaltzen dut sobretxo batean.



Jose Luis Eraña
Langilea
(26 urte)

Bai, joaten naiz normalean. Ez urtero eta ez jaialdi guztietan baina batzutan bai.




Oier Zabaleta
Ikaslea
(10 urte)

Bai, Elgoibarren egon nintzen azken Kilometroak-etan. Eguraldi txarra egin zuen baina primeran pasa nuen. Nafarroa Oinez-ean ez nintzen egon, partidua nuen eta.



Nerea Nuevo
Ikaslea
(12 urte)

Normalean ez dut parte hartzen. Orain dela urte batzuk Zarautzen egon nintzen Kilometroak-etan baina geroztik ez naiz gehiagotara joan.



Amaia Oianguren
Ikaslea
(13 urte)


Bai, asko gustatzen zaizkit jai horiek, primeran pasatzen dugu. Elgoibarren egon nintzen eta ondo pasatu nuen, martxa handia zegoen.



Ascension Susierra
Langilea
(35 urte)

Ez naiz sekula horrelako jaialdietan egon, ez dut aukerarik izan eta. Dena dela, gustatuko litzaidake joatea.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igualetoia79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasas900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 18**
 Egunez eta gauzez: Amezua. Santamaina.
- Larunbata 19**
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.
- Igandea 20**
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.
- Astelehena 21**
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.
- Asteartea 22**
 Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.
- Asteazkena 23**
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.
- Osteguna 24**
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

18 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Venecia" 7etan eta 10etan.
- **ASANBLADA SEBERON**
 Arratsaldeko 7.30etan Asanblada Seberon, euskal preso politikoen alde. Amnistia-aren aldeko Batzordeak antolatuta.

19 LARUNBATA


- **ZINEA**
 "Mi colega Dunston" arratsaldeko 5etan. "Striptease" 7etan eta 10etan.
- **KUBAREN ALDEKO KALE-JIRA GASTEIZEN**
 Blokeoaren aurka elkartasuna lemapean Kubaren alde kalejira Gasteizko Andra Mari Zuriaren plazan arratsaldeko 7.30etan. Komite Internazionalistek antolatuta.
- **ARANTXEN ERROMESALDIA ARANTZAZUN**
 Goizeko 9etan Oñatin bildu eta Arantzazura oinez edo autobusez. 11.15etan Arantzazun atsedendia. 12etan Arantxen meza nagusia. 2etan bazkaria eta ondoren festa. 5etan autobusez itzulerara.

20 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Mi colega Dunston" arratsaldeko 5etan. "Striptease" 7etan eta 10etan.
- **V. ESKALADA TXAPELKE-TA OÑATIN**
 Zubikoa kiroldegiko frontoian V. Eskalada Txapelketa. Izenematea goizeko 10etatik 10.30etara. Saillapen frogak 11etan izango dira. Finala arratsaldeko 5etan. Antolatzailea Aloñamendi Kirol Elkarte.
- **OÑATIKO ALKARTE-TXEAREN INAUGURAZIOA**
 Goizeko 12etan inaugurazioa eta ekitaldi politikoa. Jose Julian Irizar, Inaxio Oliveri eta Carlos Garaikoetxea izango dira. Ordubatean luntxa eta 2.15etan bazkaria Urriagain jabetxean. Txartelak Arrasateko Alkartetxean salgai.

DANTZA KARIBEARREN IKASTAROA

Salsa, merenge eta bachata ikastaroak azaroaren 11tik abenduaren 11ra. Egunak: astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara. Matrikula: 4.000 pta. , ikasle eta langabetuentzat 2.500 pta. Izenematea Gazte Bulegoan 77 00 65 zenbakia.



GERONTOLOGIA IKASTAROK

Psikopatologia zaharren ikastaroa. Iraupena urriaren 28tik azaroaren 7ra arte. Ordu-tegia arratsaldeko 5etatik 7.30etara. I.C.T.Eko Heziketa gelan, Loramendi 4. Zaintzaindari ikastaroa. Azaroaren 18tik 28ra. Ordu-tegia: arratsaldeko 5etatik 7.30etara. Izen ematea ikastaroa hasi baino 5 egun lehenago. Informazio gehiagorako deitu 79 02 11 edo 77 05 00 zenbakietara. ICTEK antolatu.

V. ESKALADA TXAPELKETA OÑATIKO ZUBIKOAN

Zubikoa kiroldegiko frontoian V. Eskalada Txapelketa antolatu da. Izenematea goizeko 10etatik 10.30etara. Saillapen frogak 11etan izango dira. Finala arratsaldeko 5etan. Antolatzailea Aloñamendi Kirol Elkarte. Goi mailako eskalatzailak izango dira bertan.

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.



106



306



Cabrio



806



ZATOZ PEUGEOT GAMA BERRIA EZAGUTZERA!

205




406



605



Boxer



Zaldispe, 2
ARRASATE

Tfnoa: 79 50 71 / 79 97 12

Berrria!

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.

EKOMOBIL



PEUGEOT

ARRASATEN, ZERBITZU OSOENA!



Mekanika, elektrizitatea...



Txapa, pintura.



Erakusketa eta salmenta.

URRIAK 96 PROMOZIOA

- PEUGEOT 205 MITO Diesela, aire egokitua eta direkzio lagundua 1.525.000 pta.
- PEUGEOT GAMA 306 400.000 ptako deskontua.



LEHOIAREN ESKAINTZAK

URRIAREN 18TIK 22RA

2. ESKUKO AUTOEN FERIA

AUTO BERRIKUSIAK ETA GARANTIZATUAK

SARRERA BARIK FINANTZATUAK

ZATOZ ETA BISITA GAITZAZU!!

LARUNBAT ETA IGANDEAN ZABALIK (goiz eta arratsaldez)

Berria!

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.

EKOMOBIL



PEUGEOT

Emakume taldeak ados ez

Joan den ostegunean, urriaren 10ean, Egizan, Ekin, Emakumeen Asanblada eta Famili eta Gizarte Hezketa-rako Zentruko ordezkariak prentsaurrekoa eman zuten zera esateko: gutxiegi iruditzen zaiela Udalak antolatuko duen sexualitate zerbitzuak astean lau orduko zerbitzua eskaintzea. Emakume taldeen ustez, hasiera batean egun erdiz zabalik egon beharko litzateke zerbitzu hori, eta behin finkatuta ordutegia luzatu egin beharko litzateke.

Hutsuneak pleno aretoan

EAJko, PSE-EEko, EAKo eta PPko zinegotziak joan den ostiraleko plenora joan ez arren, HBko eta EBko zinegotzien aldeko botoak nahikoa izan ziren HBk aurkeztutako mozioak aurrera egiteko. Alkatea atxilotu zutela eta, adierazpen askatasunaren alde mozioa aurkeztu zuen HBk. Plenoaren hasieran alkateak esan zuen ez zuela balorazioetan sartu nahi, baina egoera hark ez zuela barruak gehiago berotzeko balio behar. Joseba Ugaldek, berriz, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoan kokatu zituen irailaren 27an gertatutakoak. EBko bozeramalea elkarrizketaren alde azaldu zen.

Pleno ostean manifestazioa egin zen HBk deituta. 1000 lagun inguruk hartu zuten parte manifestazioan.



AKEI erraustegiko langileak greban

Astelehenean greba egiten hasi ziren AKEI erraustegian lan egiten duten 10 langileak. Abenduaren lehen erraustegia itxiko denez, lan kontratua bukatzen zaiela jakinarazi zaielako hasi dute greba. Hamar langile-etatik zazpi finko daude, eta beste hirurek aldi baterako kontratua dute. Langileek ez dakite nork duen egoeraren erantzunkizuna: Mankomunitateak, erraustegiaren jabea denak, edo Dragados enpresak, AKEI kudeatzeko eskubidea duenak, baina euren egoerari irtenbide bat ematea eskatzen diote bi aldeei. AKEIko iharduera geratuta dagoenez, orain Epelen uzten dira Deba Garaiko zaborrak.

Bestalde, abendutik aurrera Sasietara eramango dira Deba Garaiko zaborrak, eta ez Lapatxera.

EAJren eta PSE-EEren idatziak

Astean EAJk eta PSE-EE alderdiek idatzi bana kaleratu dute joan den ostiralek-plenora zergatik ez ziren joan azaltzeko.

Aipatutako alderdiek idatziak bere aldetik plazaratu badituzte ere, antzerako arrazoiak argudiatu dituzte. Bi alderdiek uste dute ez dela atsegin alkatea atxilotzea, eta alkateari eskatzen diote bozeramaleen batzordea eratztea, "demagogia gabe edo-

zein eratako mozioak azter daitezten". EAJ eta PSE-EE bat datoz HBren mozioa zini-kotzat jotzean. Euren arabera, erasoak gertatzen direnean HBk eta alkateak ez dute salaketarik aurkezten. Jeltza-leek, gainera, manifestazioak jarraituko duen ibilbidearen berri Ertzaintzari eman behar zaiola aipatzen dute, eta sozialistek esaten dute, ez dela koherentea iraintzen eta mehatxatzen dutenak adierazpen askatasunaren defendatzaile bezala azaltzea.

Institukoko ikasleek greba egin

Asteartean greba egin zuten Institutoko ikasleek. Gobernu zentralak eskola publikoei ematen dien dirulaguntza %7an gutxituko dela eta egin zuten greba. Goizean, ikasleak Instituto aurrean kontzentratuta egon ziren minutu batzuz. Greba ikasle-en sindikatoak deitu zuten.

Indioilarren kaiola erre

Zapatu gauean erre egin zen Santa Barbaran dauden indioilarrendako eraiki berri zen kaiola. Suhiltzaileak etorri arren, kaiola erabat kiskalita geratu zen. Udaleko Zerbitzu Sailekoen ustez, nahiko garbi dago sua norbaitek eragin zuela. Hemendik gutxira indioilarrak kaiolan bizi izaten hasi behar ziren.

JAIOTZAK

- Amaia Azkarate Pando. 2an.
- Mikel Amutxastegi Zubizarreta. 4an.
- Ane Mendizabal Gonzalez. 4an.
- Ander Hidalgo Arregi. 6an.
- Alai Muniozguren Uzkiza. 10ean.

HILDAKOAK

- Joaquina Gomez Tena. 4ean, 72 urte.
- Victoria Larrañaga Uribetxeberria. 7an. 92 urte.
- Josefa Martin Fernandez, 10ean. 86 urte.
- Mercedes Andonegi Telleria, 10ean. 87 urte.

EZKONTZAK

- Jesus Maria Larrañaga Lizarralde eta Maria Izaskun Altuna Ayastui. Irailaren 14an. Zibilez.

EGUZKI GRAF
inprimategia

Industrialdia 1-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA

PUB HAIZEA

ARRASATE



Oskar Elizburu *

Iparraldean euskara bultzatzeko AEKeguna

Gure Euskal Herri honetan, uda garaian, hainbat ekintza antolatzen da euskara bultzatzeko, ikastolen alde, etabar. luzea, zerrenda honen bukeran AEKeguna izaten dugularik.

Izenak berak dioen bezala, AEKegunak AEKkoen eta bere inguruko guztien eguna izan nahi du, euskaltzaleon eguna beraz, euskararen munduan egon nahi dugunona hain zuzen ere.

Jaia urteotan indarra hartuz joan da, eta irakasle-ikasleen bilgune izatetik jai zabalaz izatera heldu dela esan behar da. 96-97 ikasturte berri honetakoak halere, badu berezitasunik, Iparraldean ospatuko baita lehenbiziko aldiz, Donapaleun hain zuzen ere. Eta bateren batek esango du, baina zergatik han, hain urruti?

Iparraldea da euskararenaganako legedirik ez duen bakarra Euskal Herrian ditugun hiru esparruetan. Ez du ezer, ez ofizialtasunik, ez laguntzarik, ez onarpenik. Eta hori da hain zuzen ere behar dena, onartzea badela eta behar duen ohorea ematea.

Abestia ere badu jai honek, eta bertan adierazten

.....

*“...joan gaitze-
la denok Ipa-
rraldera, anai-
arrebak garenez
gero, gure hiz-
kuntzaren alde
egitera”*

da ederki, zabaldu nahi den mezua. Hona hemen zati polit bat:

“Euskarari zor zaio funtsezko onarpena bere denboran legezko ofizialtasuna hortan da jokatuiko euskal etorkizuna hizkuntzak daukulako eskaintzen nortasuna”.

Beraz, deialdia garbia da, joan gaitzela denok Iparraldera, anai-arrebak garenez gero, gure hizkuntzaren alde egitera.

Euskarak bere geroa geure borondatean duela jakinik, ez egin “kalerik” eta Donapaleun elkar ikusiko dugu.

Haugi mutil haugi neska euskara sustengatzera erdu mutil erdu neska AEKrekin bat egitera.

*AEKKO IRAKASLEA

USTEAK USTE

AKEI DELA ETA

Akeiko zabortegearen itxierak eta langileen mobilizazioek hizpidea eman dit zaborrez lerrotxo batzuk idazteko. Akeiko erraustegia isteko asmoa aspalditik dator, ez dituelako gutxiengo baldintzak betetzen. Hala ere dagoena kendu baino lehen soluzioa eman behar zaiola uste dut.

Lehenengo batean gaeuz kalean nihoala, zaborrezko poltsa mendi izugarri bat ikusi nuen. Bi etxe bloketan sortutakoak ziren. Harrituta geratu nintzen zenbat zabor produzitzeko gai garen.

Gizakia lurrazala gehien zikitzaren zuen animalia zena banekien baino hainbesteraino...

Horregatik esaten dut soluzioa dagoena kendu baino lehenago jarri behar dela eta ez naiz harritzen Akei bezalako erraustegi kaltegarria orain arte martxan egotea.

Zaborrendako soluziobide orokorrak planteatu behar dira eta hobeto erregulatu, goazen martxan zabor gainean bizitzea kondenaturik ez ote gaude?

Bestetik erantzunkizuna, erakundeei, udalei, diputazioari edo gobernari eskatzea ez da nahiko izango. Erantzunkizunak norberetik eta geure etxetik eskatzen hasi baharra dago.

JON ALDANONDO

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

TXOKO
TABERNA

€ure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak

Sipi Sipi

Martxa eta estilo
handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tfnoa: 79 81 82

LABek deituta 28 orduko itxialdia presoen hurbilketaren alde

Euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzatela eskatzeko, astebukaeran itxialdiak egingo dira Deba Garaiko bost herritan: Arrasaten, Antzuolan, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan. Arrasaten, Udalaren brigadak Legargainen duen lokalean eta albistea idazterako orduan zehaztu barik zegoen kooperatiba batean antolatu dira itxialdiak.

Azken asteetan LABeko arduradunak eskualdeko 106 enpresetan egon dira, Senideak elkarteak presoek eskubideak exigitzeko atera duen zazpi puntuko idatzia aurkezten. Deba Garaian dauden 490 enpresa delegatuetatik 303k Senideak-en testuarekin bat egin dute. Sin-



LABeko ordezkariak asteazkeneko prentsaurrekoan.

dikatuz sindikatu ELAren 128 enpresa delegatuk, LABeko 111k, CCOOeko 56k, UGTko 10ek eta ESK-CUISeko 3k izenpetu dute agiria. Arrasaten guztira 158 delegatu dau-

de, eta horietariko 91k sinatu dute Senideak-en agiria.

LABekoen ekimen hori lantegietan egin den arren, itxialdian parte hartzeko gonbitea gizarte osoari luzatu dio

sindikatu abertzaleak. Itxialdiak 28 ordu iraungo ditu, bihar goizeko 9etan hasi eta domekan eguerdiko ordubatean manifestazio batekin bukatuko delarik. Manifestazioa itxialdia egingo den tokitik aterako da, eta Arrasaten ezezik Bergaran eta Oñatin ere deitu dira manifestazioak.

LAB sindikatuko arduradunen arabera, ezinbesteko eskakizuna da presoak Euskal Herrira ekartzea, eta hori lortu arte ekintza desberdinak egiten jarraituko dute. Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak hartutako erabakiari buruz uste dute, euren burua demokratizatzen duen talde bat gehien-goak nahi duena ukatzen ari dela.

**Haurdun bazaude
LAURA da zure
jantzidenda.**


**Udazkeneko moda
gaztea jazteko neurria
ez da izango arazoa.**

Tailaje zabalena dugu.

Laura



**Erdiko Kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE**



Langairen datu base nagusiarekin harremanetan egongo dira Arrasateko hiru zentro.

Langaik hiru zentro laguntzaile ditu Arrasaten

Langaik, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Enplegatze Zerbitzuak, hiru zentro laguntzaile ditu Arrasaten: Eskola Politeknikoa, Bastida Akademia eta Mankomunitatea. Oraingoan, hiru zentro horiek atxiki dira Langaira, baina baliteke aurrerago gehiago izatea, Arrasateko Udala adibidez, zentro laguntzaileak izateko aukera aztertzen ari da eta.

Langai Enplegatze Zerbitzuek, langabezian daudenei eta langile bat kontratatu nahi duten enpresei eskainiko die zerbitzua. Beraz, INEM erakundeak duen funtzio bera izango du, baina Langai askoz ere eraginkorragoa izango dela eta emaitza hobekak emango dituela uste da. Langabetuen kasuan jarraitu beharreko bidea honakoa da: atzo (ostegunean) Lan Sailak jakitera eman behar zuen telefono zenbaki batera deitu, eta telefonoz bestaldekoek norberaren ikasketen edo esperientziaren arabera zein zentrori joan adieraziko du. Behin zentro laguntzailean, langabetuaren datuak jasotzen dituen kurri-

kulum bat eta fitxa teknikoak beteko dira zentroko arduradunaren laguntzarekin, eta jarraian, langabetuaren datuak Langairen datu base informatikoan sartuko dira. Horrela, lan eskaintzak ere datu basean sartuko direnez, ordenagailuak berak adieraziko du lan eskaintza horretara zein langabetu egokitzen diren. Zerbitzua guztiz dohainekoa izango da, baina tramitatzen duen kurrikulum eta lan eskaintza bakoitzeko, zentro laguntzaileak diru kopuru bat jasoko du Lan Sailetik.

Mankomunitateak Lanbide Eskolan jarri du Langairen ordezkari, eta bertan, gehienbat zerbitzuekin eta eraikuntzarekin zerikusia duten langabetuen kurrikulumak beteko dira. Eskola Politeknikoaren eta Bastida Akademiaren ordezkariak, berriz, tokian bertan egongo dira, eta zentroko ikasketekin zerikusia duten langabeen kurrikulumak tramitatuko dira. Toki horietako ordenagailuak, kable bidez egongo dira harremanetan Langairen datu basearekin.

Bedoñako errepidea

Bedoñako errepidea konpontzen hasita dauden arren, Diputazioak adierazi du ez duela beregain hartuko errepide hori Udalak uste duen moduan konpontzeko konpromezua. Udalaren arabera, 1980ean Diputazioak errepidearen seinalizazioa, sekzioa, soladura eta drenajea egiteko ardura hartu zuen, baina Udaletxean ez dago hori dioen agiririk.

Diputazioak jakinarazitakoaren berri eman dio Udalak Bedoñako auzo batzordeari, eta konpromezua jasotzen duen erreferentziarik duten galdetu diote.

EKIak Mankomunitatea kritikatu

EKI ekologi taldearen ustez, Deba Garaiko Mankomunitatea eta Gipuzkoako Diputazioa arduragabekiaz jokutzen ari dira. AKEIko langileak greban daudela eta, zaborrak Epelera eramaten direlako luzatu du kritika EKIk.

Ekologi taldearen arabera, Epelero zabortegia hondakin inerteendako da, eta debekatuta dago etxeetako zaborrak uztea. AKEI abenduan itxiko dela aurreikusita dagoenez, ekologi taldearen ustez ezinbestekoa da arduradunek zaborrei emango zaien irtenbidearen berri jendaurrean ematea.

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioko egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**




Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 79 11 30 ARRASATE

Sili Sili

**Martxa eta estilo
handiko erropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tfnoa: 79 81 82




Profesional mailako kriteriuma burutu zen domekan Aretxabaletan. Guzira 22 txirrindularik hartu zuten parte eta kriteriumak hiru froga izan zituen: ondoa, puntuaketa eta kanporaketa. Froga guztietan lortutakoa zenbatu ondoren, irabazlea **Asier Guenetxea** izan zen Euskadi taldeko atxabaltarra. Bigarrena Luis Mari Diaz de Otazu ONCEkoa eta hirugarrena Jon Odriozola Gewis aldekoa. Afizionatu mailan onenaren garaikurra Arrasate txirrindulari elkarreko Sergio Frutosek jaso zuen.



EPELDE

Juantxo Urroz eta **M^a Jose Pildain** ekainean ezkondu ziren Zumarragako Antigua elizan. Ezkonbidaian Madeiran izan dira. Zorionak!



Eguraldi zoragarria lagun **Udalatx eguna** ospatu zen zapatuan. Mendizaleak goizeko 9.30etan bildu ziren Udala auzoan handik tontorrerako bidea hasteko. 11etan meza burutu zen Udalatxen. Ondoren bertsolarien saioa eta ber-

tara hurbildutako guztiek Udalamendi kanta abestu zuten. 12.30etan berriz Udala auzoan trikitilari, bertsolari, dulzainero eta dantzariekin jaialdia burutu zen. Goizeko ekitaldiak arratsaldean izan zuen jarraipena Amaia Antzokian.



Jose Luis Borbolla eta **Nerea Quevedo** arrasatearrak udaletxean ezkondu ziren zapatuan. **Zelai Zabal** jatetxean izan zuten bazkaria eta ezkonbidaian **Birmania, Indonesia** eta **Tailandia** joango dira. Zorionak bikote!

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72


BASABE
JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

Santamainako ludoteka eta liburutegiko neska-mutilek egindako **Gora-Berri-Behera aldizkariaren** hirugarren zenbakia kaleratu berri da. Auzoko jaiak jorratu dituzte aldizkarian, beraz elkarriketak, argazkiak eta beste zenbait txutxumutxu irakurri eta ikusi ahal izango dira. Aurten gainera Alkatetzako diru laguntza jaso dute. Lan polita zalantza barik Santamainako neska-mutilek egindakoa.



IZEN PROPIOAK

● Sortu berri den **EUSKALAN** elkartearen zuzendaritza batzordea honela dago egituratuta: Lehendakaria Jose Ramon Elortza, lehendakari-ordea Julian Alkorta, idazkaria Amaia Balda, diruzaina Josu Urkia eta legelari-aholkularia Adrian Zelaia.

● **Felix eta Alberto Inurrategi** atxabaltarrak eta Josu Bereziartua azpeitiarrak Shisha Pangma mendiaren tontorrera igo ziren ostiralean. Mendi horrek 8.027 metro ditu. Inurrategi anaiek lortzen duten zazpigarren zortzi milakoa da. Aurretik, Pumori, Everest, Cho Oyu, Lhotse, K-2 eta Makalu igo zituzten.



Perkutsioa ikasi nahiez gero aukera paregabea dago Arrasateko Gaztetxean. Ostegunero Inaki Bruñaren gidaritzapean hainbat lagun elkartzen da perkutsio doinuen erritmoak ikasteko. Arratsaldeko 6etatik 8etara ematen da klasea. Tresna hori ikasteko irrikan bazaude, oraindik aukera dago, ez ahaztu!




Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:

Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

Zaldibarko Futbito Txapelketa

*Bigarren ihardunaldia
• Emaizak eta sailkapenak •
Hirugarren ihardunaldirako
partiduak •*

Zaldibar txapelketa apurka apurka aurrera doa

Bigarren ihardunaldian ez da gauza aipagarri-rik gertatu Zaldibar Txapelketan. Lesio eta zigorrei dagokienez normaltasuna izan da nagusi. Jendea ere ondo ari da erantzuten eta giro polita egoten da harmailetan. Gainera arrasatearrek jakin badakite gazte guztien tokia dela Zaldibar eta horregatik gazte gaztetatik umeak eramaten dituzte etorkizunean zer izango duten jakin dezaten. Bestela argazkian agertzen den mutil koxkorra ikustea baino ez dago. Baloia hartu eta jokatzeko gertu azaltzen da. Oraindik baloiari ostiko indartsuak emateko baba gehiago jan beharko baditu ere, jokalaria ona izateko itxura badu.



Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 26 23



Monte taberna

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Abinagraus	2	2	0	0	15	2	4
Betrayer	2	2	0	0	14	0	4
Irati STS	2	2	0	0	14	1	4
Ojo Avisore	2	2	0	0	13	4	4
Arrogoi taberna	2	2	0	0	7	3	4
Baneuko	2	2	0	0	6	3	4
Kriskibalda	2	2	0	0	5	0	4
DKB	2	2	1	0	7	3	3
Pipwhis	2	1	0	1	9	6	2
Berango Sukaldeak	2	1	0	1	9	7	2
Lorategi Potroak	2	1	0	1	8	8	2
Aurrera Bolie	2	1	0	1	7	6	2
Galartza konten.	2	1	0	1	6	6	2
Me la pela	2	1	0	1	6	6	2
Potrosorri	2	0	1	1	3	5	1
Totem	2	0	0	2	4	9	0
Alai gozokiak	2	0	0	2	3	9	0
Viboras	2	0	0	2	2	6	0
Leya	2	0	0	2	2	12	0
Kaxi Ganamos	2	0	0	2	1	14	0
Etxe Mobil	2	0	0	2	0	14	0
Onaniereng	2	0	0	2	0	17	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Bedarreta Taberna	2	2	0	0	17	2	4
Orlando Piratas	2	2	0	0	13	9	4
Txeyenex	2	2	0	0	11	4	4
MSM Ingenieria ind.	2	2	0	0	9	4	4
Danok Lagun	2	2	0	0	6	3	4
Nuevo taberna	2	1	1	0	10	5	3
KK Jaurilarizari	2	1	1	0	5	4	3
Sokoakoak	2	1	0	1	14	5	2
AC Surkos	2	1	0	1	13	5	2
Hirei	2	1	0	1	12	12	2
Tronkoteak	2	1	0	1	8	4	2
Sortu Informatika	2	1	0	1	8	6	2
Adelaida	2	1	0	1	7	14	2
Lautherbrunnen	2	1	0	1	6	8	2
Anbotoste KT	2	1	0	1	4	5	2
Koka Juniors	2	0	1	1	7	8	1
Rotor de Bolbogrado	2	0	1	1	2	12	1
Los Dimy	2	0	0	2	6	18	0
Cartonajes Igamo	2	0	0	2	4	11	0
Iluna taberna	2	0	0	2	4	12	0
Borrock'n'roll	2	0	0	2	3	8	0
Bukanak	2	0	0	2	2	12	0

Hurrengo partiduak

URRIAK 19, LARUNBATA

Zaldibar

- 8.50 Sobredosis de Txeira - ZZPPW7
- 10.00 Koka Juniors - Cartonajes Igamo
- 11.00 Berango Sukaldeak - Irati STS
- 12.00 Diego Antonio - Insert Coin
- 13.00 Borrock'n'roll - Orlando Piratas
- 14.00 Hapoel Jamon - Ganbelas
- 15.00 Perrahotsa - Naranja Mekanika
- 16.00 Nuevo tab. - MSM ingenieria int.
- 17.00 Totem - Betrayer
- 18.00 Aurrera Bolie - Alai gozokiak
- 19.00 Onaniereng - Leya

Iturripe A

- 11.00 Kinder Konpresa - Los Innombrables
- 12.00 Viboras - Ojo Avisore
- 13.00 Elisabeth - Argi Ibili
- 14.00 Kaxi Ganamos - Avinagraus
- 15.00 Gualtrapas - Okoretegi
- 16.00 Baneuko - Lorategi Potroak
- 17.00 KK Jaurilarizari - Txeyenex
- 18.00 Me la pela - DKB

Iturripe B

- 13.00 Los Heredia - Jotakabau
- 14.00 Anbotoste KT - Bedarreta taberna
- 15.00 Pipwhis - Potrosorri
- 16.00 Sortu Informatika - Danok Lagun

- 17.00 Fosforos - Ke Oxtias!!
- 18.00 Hirei - Lautherbrunnen

URRIAK 13, IGANDEA

Zaldibar

- 8.50 Adelaida - Rotor de Bolbogrado
- 10.00 Galartza kontenedoreak - Kriskibalda
- 11.00 La Mosca gao - Motz
- 12.00 Bukanak - AC surkos
- 13.00 Etxe Mobil - Bar Arrogoi

Iturripe A

- 11.00 Pepelus - Cerveceria Leintz
- 12.00 Tronkoteak - Sokoakoak
- 13.00 Los Dimy - Iluna taberna

Labur

PARTIDU INTERESGARRIENAK

Hirugarren ihardunaldian jokatuko diren neurketetatik lau azpimarragarri: Zapatuan Zaldibarren Borrock'n Roll eta Orlando piratas eguerdiko ordubatean eta arratsaldeko 5etan Totem eta Betrayer. Iturripe Bn 4etan Sortu Informatika eta Danok Lagun izango dira aurrez aurre. Igandean berriz neurketa bakarrak merezi du aipamen berezia, Pepelus eta Cerveceria Leintzen artekoa goizeko 11etan.

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Motz	2	2	0	0	11	3	4
Insert Coin	2	2	0	0	8	1	4
Cerveceria Leintz	2	2	0	0	7	3	4
La mosca gao	2	1	1	0	17	12	3
ZZPPW7	2	1	1	0	12	8	3
Okoretegi	2	1	1	0	8	5	3
Argi Ibili	2	1	0	1	12	8	2
Los innombrables	2	1	0	1	12	15	2
Naranja mekanika	2	1	0	1	10	4	2
Los Heredia	2	1	0	1	10	12	2
Ganbelas	2	1	0	1	9	8	2
Sobredosis Txeira	2	1	0	1	8	8	2
Ke oxtias!!	2	0	2	0	8	8	2
Fosforos	2	1	0	1	8	8	2
Jotakabau	2	1	0	1	7	12	2
Gualtrapas	2	0	1	1	7	12	1
Pepelus	2	0	1	1	4	6	1
Kinder konpresa	2	0	1	1	4	6	1
Elisabeth	2	0	1	1	4	8	1
Perrahotsa	2	0	1	1	3	6	1
Diego Antonio	2	0	0	2	5	10	0
Hapoel Jamon	2	0	0	2	1	12	0

Emaitzak

BIGAREN IHARDUNALDIA

A taldea

- Aurrera Bolie 5 - Me la pela 3
- Alai gozokiak 1 - Baneuko 3
- Lorategi Potroak 5 - Berango sukaldeak 3
- Irati STS 3 - Galartza kontenedoreak 1
- Kriskibalda 3 - Etxe Mobil 0
- Arrogoi Taberna 4 - Viboras 2
- Ojo Avisore 6 - Totem 3
- Betrayer 7 - Kaxi Ganamos 0
- Abinagraus 10 - Onaniereng 0
- Leya 1 - Pipwhis 7
- Potrosorri 1 - DKB 2

B taldea

- Kinder konpresa 1 - Perrahotsa 1
- Los innombrables 5 - Sobred. de Txeira 3
- ZZPPW7 5 - La mosca gao 0
- Motz 3 - Diego Antonio 2

- Insert Coin 4 - Hapoel Jamon 0
- Ganbelas 4 - Fosforos 7
- Ke oxtias 3 - Elisabeth 3
- Argi Ibili 7 - Gualtrapas IK 2
- Okoretegi 7 - Los Heredia 4
- Jotakabau 5 - Pepelus 3
- Cerv Leintz 2 - Naranja Mekanika 1

D taldea

- Nuevo Taberna 6 - Bukanak 1
- MSM Inge Integ 4 - Koka Juniors 3
- Cartonajes Igamo 1 - Sortu Inform. 7
- Danok Lagun 2 - Anbotoste KT 0
- Bedarreta taberna 4 - Borrock'n'roll 0
- Orlando Piratas 5 - Los Dimy 4
- Iluna Taberna 4 - Hirei 8
- Lautherbrunnen 4 - Tronkoteak 3
- Sokoakoak 12 - Adelaida 2
- Rotor de Bolbogrado 2 - KK Jaurilarizari 2
- Txeyenex 5 - AC Surkos 3



Lehen fasea inoiz baino luzeagoa

Aurten 22 taldeko hiru multzotan banatu dute Zaldibar txapelketa. Lehen fasea sekula baino luzeagoa izango da. Guztira 21 ihardunaldi izango ditu. 1996an 11 partidu jokatuko dira abenduaren 14-15eko asteburura arte, hortik aurrera atsedena izango dute eta. Azaroaren lein Domu santu egunean eta abenduaren

6an Konstituzio egunean txapelketak ez du etenik izango. Gauzak horrela, 97ko martxoaren 8 eta 9ko asteburuan bukatuko da lehen fasea. Bigarrenera multzo bakoitzeko lehen 10 taldeak eta 11. bi onenak sailkatuko dira. Fase hori 32 taldek osatuko dute eta 8 taldeko 4 multzo banatuko dira. Gogoratu behar da bide

batez datorren urteko ihardunaldia urtarrilaren 4,5 eta 6an hasiko dela. Urtarrilaren 6an goizez bakarrik jokatuko da. Antolatzaileei dagokienez, iaztik hona hainbat aldaketa eman da. Andoni Orobengoak eta Iñaki Rivierek antolakuntza utzi dute eta beraien orde ez beste hiru lagun sartu dira: Iker Zaitegi, Oier eta Gorka Okaiz.

Labur

IZENA EMATEKO EPEA ITXITA

Aste honetan bukatu da talde bakoitzean jokalaria gehiago apuntatzeko epea. Hasieran 1.108 lagun zeuden eta orain 1.172.

EGUTEGIAK

Zaldibar txapelketa-ko egutegiak asteburu honetan banatuko dira. Egutegietan lehen faseko neurketa guztiak dauzde zehaztuta.

EZ OHIKO EMAITZAK

Bigarren ihardunaldian ez ohiko emaitza ugari izan da. Esate baterako Sokoakoak taldeak izugarritzko goleada sartu zion Adelaida taldeari, 12 eta 2. Irati STS eta Galartza Kontenedoreen arteko partidua ere aipatu behar. Irati 3 eta 1 nagusitu zen. Kriskibalda eta Baneuko taldeak berriz, primeran hasi dira. Talde hauek iaz ez zuten lehen fasea gainditu.

Biteri, 13
Tfnoa: 79 21 71
ARRASATE

Clarks
Banatzaile ofiziala

Lehenengo urteurrena!

Yoa'z
oinetakoak

Barrenkale, 9
Tfnoa: 76 22 86
BERGARA

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

LOGOPEDIA
ZENTRAU
ARRASATE


HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1ª Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



weru[®]
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVCko ate eta
leihoez gain:
Moketak jartzea,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, textila...



LORAMENDI


*Sartu
aerobic-aren
martxan*

● *Gesalibarko Ospitala*

Bainuetxe jaio, ospitale izan, monumentu izendatu

Beñardo Kortabarría

Bainuetxe izaeraz jaio zen gaur egungo San Juan Ospitalea. Naturak ur sulfurosoa jarri eta hori aprobetxatu nahirik gizakiak eraiki zuen gainontzeko negozioa. Ingurune apartekoa, eguraldi atsegina, lasaitasuna eta zerbitzu ezin hobea izan ziren bainuetxearen eskaintzaren oinarri. Gauzak betirako ez direla eta, denboraren beharretara egokituz joan behar izan du hasiera hartako bainuetxeak. Aspaldiko kontuak horiek, denbora ez da eta geldirik egoten, baina aspaldikoa izateagatik jaso du orain monumentu historikoaren izendapena.



Santa Ageda 1835. urteko marrazki batean.

“Gesalibarko urak herpesa, anemia, nerbioetako gaixotasunak, sifilisa, klorosia eta emakumezkoen gaixotasunak sendatzeko gaitasun handia zeukan”

Hemen lau egun igaro eta beste bat naiz”, esaten ei zuen Canovas del Castillo famatuak Gesalibarko bainuetxean denboraldi bat egin ondoren. Izan ere, liburuetan aipatzen da Gesalibarko urak herpesa, anemia, nerbioetako gaixotasunak, sifilisa, klorosia eta emakumezkoen gai-

xotasunak sendatzeko gaitasun handia zeukala. Bainuetxea XIX. mendean eraiki zen, baina ospea lehenagotik datorkio Gesalibarko urari.

Garibai berak ere XVI. mendeko hango ura erabiltzen zela aipatzen du.

1825. urtean eraiki zuen bainuetxea Ramon Mendia arra-

satearrak, Pedro Manuel Ugartemendia arkitektuaren zuzendaritzapean. Bezeroendako 14 gela, ur beroaren eta hotzaren bainuak, mar-

molezko iturriak, dutxak, eta erizain zerbitzua zuen. Iku-sirik negozioa ondo zihoala, Mendiatarrek bainuetxea handitzea erabaki zuten. Horretarako eraikin berri bat altxatu zuten, luzeeran 90 metrokoa eta 3 solairutakoa.

CANOVAS DEL CASTILLOREN ERAHILKETA

Zabalduekin zen poliki poliki bainuetxearen ospea, Canovas del Castillo bera erakartzeraino, eta politikariaren etorrerak oraindik eta jende gehiago erakarriko zuen. Zorionetik sasoi ilunetara dagoen bidea askok uste dutena baino laburragoa izan, eta horrela 1897ko abuztuaren 8an Angiolillo izeneko anarkista italiar batek pistolaz erahil zuen politikari espainiarra. Zuri zena beltz bihurtu zen, eta Angiolilloren pistolakadak Canovasen bizitzarekin batera Gesalibarko bainuetxearen oporatasuna erahil zuen. Ordura arte noiz behinka bainuetxera etortzeko ohitura hartua zutenen zaldi-karro gehiagorik ez zen ikusiko Gesalibar inguruan. Egoera latz haren aurrean Mendiatarrek salgai jarri zuten hotela, bainuetxea eta gainontzeko jabe-

du Mendiatarrekin harremanetan jartzeko. 250.000 pezetatan erosi zuen dena.

BAINUETXETIK OSASUN ETXERA

1898. ekainaren lehen, lokalak bedeinkatu ondoren, irerikiko zuten Santa Agedako Osasun Etxea, buruko gaitasunen bat zuten emakumezko zein gizonezkoendako ospitala. Inauguraketa

tan eraikuntza berdinean egon ziren emakumezkoak eta gizonezkoak, baina ondo bereiztuta.

Normala denez hasierako beharretarako nahikoa zen lehenengo eraikin hura, baina denborak aurrera egin ahal gaixo kopuruak ere gora egin zuenez, Osasun Etxean aldaketen bidea hartu beharra egon zen. Aldaketa berri gehiago egingo ziren inauguraketaren ondorengo urteetan, baina hasiera hasiera-

mena merezi duen aldaketa gertatu zen: emakumezkoen eta gizonezkoen ospitalen bereizketa. Orduetik aurrera zuzendaritza mediko bakarra egongo zen ospital biendako, baina gainontzean bakoitzak bere bideari jarraituko zion independentzia osoz. Lur sail gehiago erosi ziren, pabilioi berriak eraiki, zaharrak bota, txaleta egin, fonda ireki, 1925. urtean erreka estali zen, eta 1930. urteari buruz aipamen bereizitxo bat egiteko beste



Haxe da monumentu historiko izendatu duten eraikuntza.

“Hasierako beharretarako nahikoa zen lehenengo eraikina, baina gaixo kopuruak gora egin zuenez, Osasun Etxean aldaketen bidea hartu zen ”

tasun guztiak.

Jakina, batzuen zoritxarra besteen zoriona. Aita Mennik, San Juan de Dios ordeneko fraideak, aurrez bertan egondakoa izateagatik ondo ezagutzen zuen bainuetxea, eta gertatutakoa jakin ondoren, ez zuen denborarik gal-

egunean bertan iritsi ziren lehen gaixoak, 25 emakumezko eta beste hainbat gizonezko. Gizonezkoen kargua San Juan de Dios ordeneko fraideek zuten; emakumezkoena, berriz, Jesusen Bihotzaren moja ospitalariek. Osasun Etxearen lehen une haie-

tik bi arazo garbi izan zituzten: Aramaio erreka estaltzea alde batetik eta bailararen estutasuna bestetik. Arazoak arazo pabilioi berriak egin ziren, pizinak, pasealekuak, jardinak, indar elektrikoaren ekarriera, ur korrontea... 1906. urtean aparteko aipa-

geldiune bat. Izan ere, aipatutako urtean bereizketa berri bat, emakumezkoen euren mediku taldea izango zuten eta gizonezkoen euren. Bereizketaren ondorioz eta urte haie-tako joerari jarraituz, izena aldatu zitzaion Osasun Etxeari, Gaixotegi Psikiatriko izango zen orduetik aurrera San Juan de Dios Ospitala.

Gerra zibila etorri zen gero, eta toki denetan bezala, Ospitalean ere beltzak eta gorriak ikusi zituzten. Bukeraren, klinika psikiatriko

bikoitza izan zen: alde batean ejerzitoko gaixo mentalak; bestean, preso hartutakoak. Ez dago inungo erreferentziarik urte haiei buruz, baina pentsatzekoa da alde nabarmena egongo zela bazuen eta besteen artean.

ARO BERRIA PSIKIATRIAN

Handik aurrera aro berria etorriko zen psikiatrian, espazio zabalagoen beharra aldarrikatzen hasi zen, denbora librearen terapiarena, eta ondorioz Ospitalak eskakizun hari erantzun behar izan zion, ez bakarrik medikuntza aldetik, baita eraikuntza aldetik ere. 1948. urtean 4 sekzio handi bereizten ziren San Juan de Dios ospitalean: 1) Klinika bera, obserbaziorako eta tratamendurako (Ingreso eraikuntzan). 2) Laborterapia, lanean jarduten zuten gaixoak (Beneficencian). 3) Lasaiak, ezin zutenak ezer egin baina baketsuak zirenak (Sgdo. Corazón pabilioian). 4) Bukaerakoak eta ergelak. (Inmaculada pabilioian).

Jakina azken urteotan ikaragarri aldatu dira gauzak eta "ergelak" moduko izendapenak aspaldi desagertu ziren psikiatria mundutik, baliabideak asko hobetu dira eta ondorioz baita gaixoen bizi baldintzak ere. Egokitze bidea hartu izan da betidanik Santa Agedan, horren adibide oraindik orain San Juan ospitalen bukatu berri diren obrak. 2.000 milioiko inbertsioa hiru eraikin berri egiteko: administrazioa, psikogieria zerbitzua nagusiendako, eta bestea gaixoendako. Aita Menin ere egin ziren obra handiak bere garaian. Lekutan geratu dira beraz, Canovas del Castilloren denborak, nahiz eta monumentu historiko izendapenaren ondorioz bera hil zuteneko eraikuntza orain berri izan.



Hiru eraikuntza berri egin dira orain gutxi San Juan ospitalean.

“Gerra bukaeran klinika psikiatriko bikoitza izan zen: alde batean ejerzitoko gaixo mentalak; bestean, preso hartutakoak”

Santa Ageda paper zaharretan

Santa Agedari buruz asko idatzi izan da urteetan zehar. 1897. urtean propaganda idazki batek honela zioen:

Kokapen geografikoa

... Santa Agedako herrixka aurkitzen da, bailara osoari ospe handia eman dion bainuetxe ikaragarria.

Herrixka zein bainuetxea bailara alai eta bizi baten barruan daude, herrialde hartako gehienak bezala mendi garaiez inguratuta, eta horien artean Murugain alpa genezake, bere baitatik irtetzen dira eta ur sulfurosoak...

Eguraldia epela eta umela da udaran, eta urteko sasoi honetan bertan bizi direnentzat abantailak besterik ezin ditzake ekarri; temperatura epelak, mendietako aidearen garbitasunak (hobetuta landaretza aberatsaren ondorioz, udaren sargoria moteltzen dutelako eta orokorrean ur minerala erabiltzen duten gaixoei on egiten dielako), elikadura bikain eta bariatutak, bainuetxeetako bizierak eta Santa Agedan betidanik nabarmendu dena jende jantzi eta jakituna biltzeagatik; Santa Agedako sendatzeko uren gaitasuna dela eta, osasun galduaren bila bertara datozen gaixoak erakartzeko

nahiko baldintza badira.

Bainuetxearen instalakuntzak

Espainiako eta atzerriko bainuetxe osatueneren lehiakortasunean, aurrerakuntza modemoenen pareko dira...

Ostatuak

... gela guztiak garbitasun baldintza ezin hobegotan daude, eta zerbitzua arropa, bainu-arduradun eta morroiei dagokienez ezin arretatsua da. Zerbitzu osoa da arretatsua; eta mahaiak, Madrilgo sukaldariak zerbitzatu, itzelezko fama du, eta menpeko denak beren adeitasuna eta argitasunagatik nabarmetzen dira.

Medikuntza bertutek

Santa Agedako ur mineralak, aintzinasunetik ezagunak bere sendagarritasunagatik, amasketan, zirkulazio aparatuan, eta digestio aparatuan eragin garrantzitsua dute, baita nerbio sisteman eta azalean; lehen fasean eragin lasaigarria dute, bigarrenean ernegarria, eta hirugarren batean aldagarria...

ur hauek, orokorrean, 4 astetik gora erabili behar dira eragina izan dezaten eta beti sendagileen zuzendaritzapean”.

Aitor Lopez Rekarte Realeko azken arrasatearra

Aitor Lopez Rekartek gazte askoren ametsa errealtate bihurtu du, 2.000 urtera arte lehen mailako Real taldeko jokalaria izango da. Aitorrek beraz, Luis Mari bere anaia-
ren bidea jarrai dezake, baina horretarako jakina, oraindik bide luzea du lantzeko.

— Joan zen astean sinatu zenuen kontratua Realarekin, fitxaketa horrekin zure asmo gehienak bete dira?

— Ez, oraindik lehen mailan ez dut ezer egin, beraz fitxaketa hori jokalaria moduan bidea zabaltzeko aukera bat baino ez da izan. Orain lanean jarraitu beharko dut Realean toki bat lortzeko.

— Zenbateko klausula jarri dizute?

— Jokalari gehienei jartzen dieten klausula, diru gehiegikoa baina gaur egun horrela daude gauzak. Alde batetik ulertzekoa da diru dexenteko klausulak jartzea bestela edozein talden esku-
ra egongo ginateke.

— Noiztik Realean?


— 12 urterekin etorri nintzen. Mondran denboraldi bat egin eta Realak deitu zidan. Bertan infantil, kadete, jubenil eta Real B taldeetan ibili naiz eta orain Realean.

— Aurten lehen mailan jokatzeo aukerarik izango duzu?

— Ez dakit, hori entrenatzailearen esku dago. Dena dela, espero dut urte honetan aukeraren bat izatea, horretarako nabil lanean.

— Real B eta Realean jokatzea oso desberdina da?

— Erabat desberdina.



Lehen mailan beste modu batean ikusten da futbola eta prestakuntza aldetik ere desberdina da.

— Gaur egun nola dago Reala harrobiko jokalarientzat?

— Harrobikoentzat ez dago batere ondo, atzerritarrak bidea ixten digute baina hori arduradunen erabakia denez, horren aurrean harrobikook lana besterik ezin dugu eskaini eta aukera itxaron.

— Bossman legearen gainean zer duzu esateko?

— Harrobiko jendearentzat txarto dago.

“Nire familiakoak beti egon dira nire alboan eta asko lagundu didate heldu naizen tokira heltzeko orduan. Orain urrutiago iristea nire esku dago”

— Lege hori dela eta, gaur egun edozein atzerritar ekartzten da harrobiko jokalariek egin dezaketen lana egiteko?

— Talde batzutan behar bada gerta daiteke hori, baina Realean nire ustez fitxaketa onak egin dira. Dena dela, orain emaitzak ikusi beharko dira.

— Izan duzun entrenatzaile gustokoena?

— Egia esateko denekin aritu naiz gustora. Une honetan Inaxio Kortabariarekin oso gustora nago, gainera ni bezala arrasatearra da.

— Hegalean jokatzen duzu

baina zein da zure postu gustokoena?

— Niri zelai erdian jokatzea gustatzen zait. Hala ere, jokatuz gero, edozein lekutan gustora.

— Luis Mari Anaia zure ispilua izan da?

— Bai, beti egon da nire alboan eta aholku onak eman dizkit. Baina bide batez esan behar dut familia osoaren laguntza eta babesa jaso dudala, aita, ama, anaiak.

— Realarekin zein talderen kontra debuta egitea gustatuko litzaizuke?

— Talde handi baten kontra baina lehen mailan jokatuta berdin zait zeinen kontra.

— Athletic-ek deituz gero, joango zinateke?

— Pentsatu egin beharko nuke eta ondo aztertu eskaintza.

— Selektzioarekin ere jokatzen duzu, zer sentitzen da?

— Poz handia, jokalaria asko gaude eta aukeratua izatea polita da. Gainera selektzioa eskaparate ona da beste talde batzuk ikusi eta bideak zabaltzeko.

— Noiz jokatu zenuen selektzioarekin lehen aldiz?

— Orain dela 6 urte Peru taldearen kontra 15 urte azpiko selektzioarekin. Harrez gero, 17 eta 18 urte azpikoetan ere jokatu izan dut.

— Futbolaz gain zeintzuk dira zure afizioak?

— Tenisa, saskibaloia eta motoziklismoa asko gustatzen zaizkit eta baita lo egitea ere.

Herri krosa eta olinpikoei omenaldia Aretxabaletan

Herri krosa antolatu da domekarako Aretxabaletan UDA elkartearen 50 urteak ospatzeko. Goizeko 11etan gazteen frogak burutuko dira. Infantil neskek 1.000 metroko ibilbideari egin beharko diote aurre. Mutilek berriz, 1.500 metrokoari. 11.25etan kadeteen emakumezko txanda izango da eta hauen egin-beharra 1.500 metro egitea. Mutilek 500 metro gehiago egin beharko dute irabazlea nor den erabakitzeko. Maila bakoitzeko lehen hiru sailkatuentzat garaikurra egongo da eta parte hartzaile guztiek bereziki egunerako egingdako kamiseta jasoko dute. Eguerdiko 12etan herri krosa hasiko da. Ibilbideak 10 kilometro izango ditu gizonentzat eta 7,5 kilometro emakumeentzat. Izene-matea dohainekoa da. Ibilbidea herri barrukoa da, 2.500



Olinpikoei omenaldia jasoko dute domekan Aretxabaletan.

metro izango ditu eta gizonak lau bira eman beharko dizkioten moduan, emakumeek hiru. Sariei dagokierenez, lehenak 50.000 pta. eta garaikurra jasoko ditu. Bigarrenak 40.000 pta. eta garaikurra. Horrela zazpi lehenak arte. Emakumeetan sari nagusia 30.000 pezetakoa da eta sei lehenak jasoko

dute. Horrez gain, lehen beterano eta lehen juniorrak ere izango dute saririk. Bestalde Atlantako Joku Olinpikoetan izandako korrikalari euskaldunei omenaldi berezia egingo zaie. Joseba Larrinagak, Jabi Condek, Martin Fizek eta Diego Garciak jasoko dute omenaldia.

Urbina Maltzagak ezin garaipenik lortu orain arte

Urbina Maltzaga saskibaloitaldeak jokatutako hiru ihardunaldietan ez du garaipenik eza-gutu. Une honetan 3 punturekin sailkapeneko azken tokian dago. Dena dela eta taldeko ordezkarien hitzetan taldean hobekuntza igerri da.



Jokalariek azkarrak dira baina asko igertzen ari da ganorazko aurrendenboraldia ez dutela egin. Bestalde jokalariek atzeritarren baja ere hor dago. Moises Michael Gruz jokalaritari aste honetan ultimatuma eman diote

na ez bada azaltzen.

Zapatuan bestalde laugarren partidua jokatuko du Arrasateko taldeak Pinturas Leparatoren kontra. Neurketa Iturripen jokatuko da arratsaldeko 6etan.

bere etorrera asko atzeratzen ari delako. Urbina Maltzagako ordezkariak epe moduan asteburu hau jarri badiote ere, zaila ikusten da epe hori betetzea eta hurrengo astera arte itxaron beharko dute, gutxienez tarte horretan beste atzeritar on eta merke baten ize-

Eskubaloiek primeran

Arrasateko eskubaloitaldeak garaipen batekin hasi du 96-97 denboraldia. Zapatuan 23 eta 22 irabazi zion Kataluniako San Esteve taldeari. Azken orduan lortutako garaipena izan arren, taldea gogoz eta ilusio handiarekin dabil eta hori jakina, ona da denboraldi luzeari aurre egiteko. Bigarren partidua domekan eguerdiko 12etan jokatuko du eskubaloitaldeak Granoiesen, La Roca taldearen kontra. Kataluinako taldeak lehen norgehiagoka galdu egin zuen Tres de Mayo taldearen aurrean.

Mondra berriro Atxabalpen

Preferente mailako Mondra eta Mundarro izango dira nor baino nor Atxabalpen domekan arratsaldeko 4.30etan. Mondrak etxean bi neurketa jarraian jokatuko ditu eta kontuan hartuta Atxabalpen partidua guztiak irabazi dituela garaipena lortzeko eszenatoki ona izan daiteke. Domekako aurkaria sailkapeneko 17. tokian dago. Jesus Mari Barrutiabengoa entrenatzaileak garaipena posible ikusten du baina horretarako Mondrako jokalariek ondo aprobeztatu beharko dituzte sortzen diren aukerak.

- Mondrako emakumezkoek berriz Iruñeko Amaia taldea izango dute aurrean Domekan. Arrasatearrek ez dute nafarren jokoa ezagutzen, baina ez ei da talde sendoa.

Rugbya etxean

Rugby taldeak Bilboko Unibertsitate taldearen bisita jasoko du zapatuan arratsaldeko 4etan Gargartzan.

Julio Lantigua

“Jendea erraz engantxatzen da karibiar dantzekin”


Julio Lantiguak Dominikar Errepublikako 26 urteko dantzariak, Gazteria sailak antolatu duen karibiar dantzen ikastaroa emango du azaroaren 11tik aurrera. Gazte hau orain dela 5 urte etorri zen lehenengo aldiz Euskal Herrira bere herritik, Puerto Plata-tik. Orain Galdakaon bizi da eta esaten du oso gustora sentitzen dela Euskal Herrian. Arrasatear guztiak animatu nahi ditu karibiar dantzak ikastera.

— Non ikasi zenuen dantzan?

— Dominikar Errepublikan ikasi nuen, baina ez eskola batean, kalean baizik. Han, dantza kalean dago egunero, ez da bereziki inora joan behar dantzan egiteko, hango bizimoduaren errutina bat da eta jende guztiak daki dantzan. Nik ere kalean ikasi nuen eta gero, eskola batean egon nintzen Dominikar Errepublikako kulturaren historia ikasteko. Eskola hartan dantzen historia, esanahia eta jatorria ikasi nuen.

— Nola ematen dituzu dantza klaseak?

— Bi zatitan bana daitezke. Alde batetik dantzen historia eta esanahia azaltzen diet ikasleei; bestela, ez diot zentzurik ikusten hona eto-



rri eta besterik gabe dantzan egiten irakasteari. Ondoren, dantzak irakasten hasten naiz.

— Jendea erraz engantxatzen da karibiar dantzekin?

— Segituan. Iaz adibidez, salsa lehiaketa bat egon zen Bilbon eta nire ikasle batzuk irabazi zuten, beraz, jendeak ikasten hasi eta gero gehiago nahi izaten du. Beste asko ere, musika karibiarra jartzen den tokietara joaten da dantza egin ahal izateko.

— Gustatuko litzaizuke dantza karibiarren talde bat sortzea?

— Ez da hori nire asmoa. Gustora nago egiten dudana erekin, irakastearekin hain zuzen. Emozioz betetzen nau herri batetik bestera joatea talde desberdinei dantzak irakastera. Jende berria ezagutzea gustatzen zait, hori oso aberatsa da. Egia esan, zirrara berezia sentitzen dut ikastaro berri bat hasi behar dudan bakoitzean, urduri jartzen naiz.

— Zer esango zenioke Arrasateko jendeari ikastaroan izena eman dezan?

— Karibiar kultura ezagutzeko aukera izango dutela esango nieke, hau da, ez dutela dantza egiten ikasi behar bakarrik, zerbait gehiago ikasi behar dutela baizik. Bestalde, primeran pasatuko dutela ziur nago eta gainera gorputza mugimenduan jartzeko aukera izango dute eta hori sekula ez dator gaizki. Anima daitezela!

LABURRAK

Gazteak eta Intsumisioa argazki lehiaketa

Arrasateko Gazteria Sailak antolatutako Gazteak eta Intsumisioa VII. Argazki Lehiaketara lanak aurkezteko epea urriaren 11an amaitu zen eta 30 lan inguru jaso dira udaletxean.

Lehiaketa bi kategoriatan zegoen banatuta: A kategorian, Deba Garaiko 14-18 urte tarteko gazteentzat eta B kategorian, edonongo 19-35 urte tartekoentzat.

Aurkeztu diren lan gehienak B kategoriakoak dira eta Madril, Murtzia nahiz Leondik heldu dira argazkiak.

Irabazleen izenak gaur emango dira ezagutzera Monterronen eta ondoren argazkien erakusketa zabalduko da. Erakusketa urriaren 31ra arte egongo da zabalik.

Ikastaroak

Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak zabalik du oraindik hainbat ikastarotan izena emateko epea. Goizez burutzen diren ikastaroak lana bilatzeko teknikak, sukaldaritza eta goxogintza, 3. adinaren asistentzia, masaia eta erlajazioa eta tapiz eta makramea dira; arratsaldekoak berriz, bolillo enkajea, egur taila, harizko lanak, tapizeria, jostintzarekiko hasiera, eskulanak, psikologia (autoestima kurtsoa) eta heldutasun frogetikiko prestaketa.

Ikastaro hauetarako plazak mugatuak dira eta ikastaro bakoitzaren hasiera data matrikula egin ostean jakinaraziko da. Informazio gehiago nahi edo izenematea egin nahi izanez gero, 790459 telefonora deitu edo bestela Santa Teresako 12. zenbakira joan.

“Emozioz betetzen nau herri batetik bestera joatea talde desberdinei dantzak irakastera. Zirrara berezia sentitzen dut”


Komikiak 100 erakusketa: komikiaren mendeurrena Harresin

Gaur zabaldu da Harresi Aretoan *Komikiak 100* izeneko erakusketa. Erakusketa horrek komikiaren mendeurrena ospatzea du helburu eta 18 herritan komikiarekiko arreta, lilura eta zaletasuna suspertu nahi du.

Komikiak 100 erakusketak komikiaren oinarrizko ezaugarriak aukeratu ditu mundu hori ezagutzera emateko: bineta eta globoa. Bineta, globoa, narratiba eta zarata nahiz mugimenduen adierazpenak dira erakusketaren lau erakusdorretan proposatzen diren gaiak. Erakusketako aurpegi nagusian bineta bat zer den eta nolakoak dauden adierazten da modu argian eta dibertigarrian. Era berean azaltzen dira globoak, narratiba eta zarata nahiz mugimenduen gaiak ere. Horrela, Euskal Herriko komikiak mundu guztian ezagunak diren komikiekin batera agertzen dira erakusketaN.

Komikiaren ofizioa

Erakusketaren atal batek



Komikiaren historia, ofizioa... guztia *Komikiak 100* erakusketan.

komiki bat nola sortzen den ikusteko aukera ematen du. Hiru erakusdorrek eta bideo batek eskaintzen dute komikigileen lana pausoz pauso.

Alde batetik, gidoigilearen lana zertan datan azaltzen da. Honen zeregina komikiaren testuak asmatzea da orri zuriak zikinduz. Gidoigileak gidoi zehatza egiten du, pertsonaien hizketaz gain, orriaren binetak eta bineta barruan ekintzak nola antolatu adierazten du ere.

Marraskilariaren lana

berriz, bestelakoa da. Honek arkatza hartu eta binetak orriaren banatzen ditu, bineta barruko enkuadreak zehazten ditu.

Eskema hori bera erreplikatzeko atal horretako hurrengo bi erakusdorretan. Luma batek burutzen du zuri beltzaren esparruari dagokiona, eta pintzel batek kolorezatzeari dagokiona. Hasierako zirriborroari tinta eta kolorea eman ondoren, errotulazioa dator, hau da, hitzak marraztea.

Prozesu guzti hau bidez

ere ikus daiteke erakusketan. Olariaga komikigilearen tailerrean egindako grabazioa da bideoan erakusten dena, Zaki-lixuten komiki tira edo banda bat asmatzen.

Bestalde, erakusketan omenaldi berezia egiten zaio 1960an euskara zigorpetik ateratzen hasi berri zenean sortu zen Pan-Pin aldizkariari. Aldizkari hau Donostian argitaratzen zen eta euskaltzale talde batek bultzaturik, elizaren babesean ateratzen hasi zen. Aldizkaria ikastoletako umeei zuzendua zegoen. Ondoren Kili-Kili komiki aldizkaria etorriko zen eta ondoren Ipurbeltz.

Komikiak 100 erakusketak jende guztiarentzat zabalik egongo da astegunetan arratsaldeko 6etatik 8etara eta larunbat eta jai egunetan eguerdiko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara. Horrez gain, LH6, DBH1 eta DBH2 mailakoentzat zuzendutako bisitak egongo dira. Guztira 1.176 ikasle pasatuko dira erakusketa ikustera eskola orduetan.



Kabia

ALTZARIAK



Erreformagatik guztia merke baino merkeago!

Prezio sinestezinak!

Aukera aparta!

Zatoz ikustera!

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tfnoa: 79 27 70

Hemendik bi
astera ezusteko
bat jasoko
duzu zure
etxean.

● *Angelo Cacciola*

Iraultza industrial modernoan

Bere izena entzun ondoren pentsa edo imajina daitekeen moduan, italiarra da Angelo Cacciola. Ekonomian lizentziatutako gizon honek orain gutxi enpresa berri bat zabaldu du Arrasaten Deba Garaiko Mankomunitatea eta INEMen laguntzaz baliatuta. Teknologia berrien eta mundu mailako komunikazioan sartuta dabil Angelo.

— Orain Euskal Herrian zabilta lanean, baina orain arte?

— Liguriako eskualdean jaio nintzen, Genoatik gertu dagoen herri batean. 18 urte nituela Parmara joan nintzen eta bertan 15 urtez bizi izan naiz, lanean eta ekonomista ikasketak egiten.

1988an Lausanako unibertsitatera joan nintzen, irakasle gisa, Antolaketen Psikosoziologia irakasteko.

— Zer da hori?

— Jendetzaren manipulazioa.

Lau urte egin nituen Lausanan eta aldi berean doktoretza atera nuen Friburgoko unibertsitatean, teoria ekonomikoari buruz. Teoria horren

alde praktikoa Euskal Herrian burutu dut, tradiziozko kulturak iharduera ekonomikoan duen eragina azalduz.

— Zergatik Euskal Herrian?

— Hemen bizi naiz eta. 18 urte nituela klandestinitatean igarotzen nuen muga, Italian hainbat dokumentazio zabalteko: alderdi komunistarena, sozialistena, orduko ETArene... Bilboko neska bat ezagutu nuen oporretan eta bisitatzerara etorri nintzaionean jabetu nintzen hemengo egoeraz, horregatik hasi nintzen era horretako lanetan, esku bat botatzeagatik.

Gerora oporretan etortzen nintzen, horrelako batean gaur egun nire emaztea dena ezagutu arte. Suitzara joan ginen biok bizi izatera, Lekeitiora etorri ginen gero, Italiara itzuli, eta azkenik Oñatira.

— Bertara etorri, eta ekonomilaria enpresari bihurtu.

— Unibertsitateetan ez dago lan eskaintza handiegirik, eta jakina zerbaitetan hasi behar lanean. Mankomunitatea eta INEMen laguntzez baliatu nintzen Elkarkom zabalteko. Momentuz jendea hezi nahi nuke Interneten; bestetik sarera bertara sartze-



ko aukera eskaini, norberari sarean bere tokia edukitzea aukera eman. Azkenik, goi mailako formakuntza ere eskaintzen dut, HTLM programatzeko hizkuntzarena.

— Kaleko edonori zertarako balio?

— Sistemaren aldaketa demokratikoa ekarriko du. Interneten zer esan aukera dezaket, zer irakurri... multinazionalen parean, botere sistemak aldatzen ditu. Telelana ekarriko du, enpresa birtualak. Hemen krisia dagoela? Ondo, nire produktuak beste nonbait saldu ditzaket, Frantzia, Amerikan... etxetik mugitu barik. Berdin kontabilitatea eraman, artikulua idatzi, diseinatu...

— Non trebatu zinen?

— Suitzan nengoela eza-


gutun Internet, 89an. Ordu piloa sartu nuen ikasten. Garai hartan bakarrik militar amerikarrek eta unibertsitate batzuk zuten Internet erabiltzeko aukera.

Mundua aldatuko duen zerbait da, elektrizitatearen edo autoaren asmakizunaren pareko iraultza industrial. Gauzak, ekintzak, jendea, ideiak, dirua... denetarik mugitzen da sare honetan. Bera alde txarra ere badu, 40-50 urtekoak kanpoan gertatzeko arriskua izan dezakete eta, ordenagailuaren erabilerrara egokitzeko gaitasunik izan ez duen jendea.

— Honen etorkizuna ordenagailuetan dago?

— Ez, telebistetan. Estatu Batuetan dagoeneko atera dute tresna bat, telebistari erantzen zaio eta telebista bera Internet bihurtzen da.

● **Mundua aldatuko duen zerbait da, elektrizitatearen edo autoaren asmakizunaren pareko iraultza industrial ekarriko duena. Ezin dugu tren hau galdu.**



H

itz gutxiko fotozaharra aste honetakoa. Izan ere, datorren astean Leizargarateko txabolaren inguruan nahi beste kontu irakurtzeko aukera izango duzue Arrasate Pressen: nola egin zen, zeintzuk, zer gorabehera izan diren bertan, hura erabiltzeko zein pausu eman beharra dagoen,


nola den Leizargarateko asteburu bat, etab. Beraz, bi irudiekin utziko zaituztegu, goikoa oraindik eraiki gabe zutenekoa. bestea, berriz, orain gutxikoa, nahiz eta oraindik pintatu barik egon. Argazki hauendako aitzakia? Oraintxe betetzen direla 25 urte txabola egin zutenetik!!

Z E R N A H I A G O ?

Valentin Arana

“BETI ONA” gimnasiokoa

- Zer egiten du margolari batek gimnasio batean? Hobe litzateke “zer egiten du gimnasta batek margotzen” esatea, margolaritza ondorengo afizio bat da eta.
- Zein aparatu gustatzen zaizu gehien? Press-banca, pektoraletakoa.
- Aerobica egiten duzu? Bai.
- Izaten duzu agujetarik? Ariketaz aldatzen badut bai.
- Arrasateko jendeak zaintzen du gorputza? Bai, gero eta gehiago, batez ere emakumeek.
- Dieta berezirik egiten duzu? Ez, baina garbi jaten dut.
- Txandala edo bakeroak? Txandala.
- Kirol arropa marka bat? *Rip- Curl*.
- Abiadura gustatzen zaizu? Ez.




- Edari bat? Ura.
- Ikusi duzun azken pelikula? *Eraser*.
- Etxean baduzu bideorik? Bai.
- Betegabeko amets bat? 15 egun barru beteko dut: Amsterdamera eta Brujasera joatea.
- Azken juerga noiz? Orain dela urte pare bat, soltero despedida batean.
- Zer egiten duzu igandetan? Margotu eta familiarekin egon.
- Sinestuna zara? Bai.
- Egiten dituzu egunkarietako autodefinituak? Ez.
- Zein aldizkari erosten duzu?

Muscle-Mag.

• Margolari bat? Bat ez, hiru baizik: Carlos E. Gil, Garcia Barrena eta Julio Galarta, nire maixua.



Bezerearekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak

Irtenbide aproposena!





(I+D) Ikerketa eta garapena

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.
Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Fabrika Zentrala

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia




• ESAERA •

Mintzatzen diren moduan idazten dutenek, ongi mintzatu arren, gaizki idazten dute”.


Georges Luis Leclerc

• JEROGLIFIKOA •



Izan ala ez izan

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Heavy-metal talde arrasatearra. 7. Frantziako irla, Atlantiar Ozeanoan. 8. Beharbada. 10. Ahalmen, posibilitate. 12. Banku bateko jabe. 13. Nafarroako mendia 1.1124 m. 14. Galioa. 16. Arraunlarien eserleku. 17. (Ald.) Musu. 18. Itsasoan ugari. 19. SA batean partaidetza titulua.

Bertikalak 1. Ataskatu. 2. Erraz xehatzen dena. 3. Salmenta. 4. Hosni, politikari egiptoarra. 5. Saudi Arabiako probintzia. 6. Euskadiko Zeliakoan Elkarte. 9. Kontzeptu. 11. Alkoholdun edari gozoa. 15. Igelaren antzeko afibia.

• HOROSKOPOA •

Aries Udako maitasunak ez dira hain onak, ezta?

Taurus Gastuak murriztu edo etxean geratu. Zeuk aukeratu.

Gemini Azkenaldian gehiegikeria gehiegi egiten duzu.

Cancer Zuk duzun gaisotasuna psikologikoa da.

Leo Gehiegi kezkatzen zara katarro txiki batengatik.

Virgo Beti behera egiten duen burtsa dirudi zure poltsikoak.

Libra Gorputza gogortuta daukazu, kirola egiten hasi!

Scorpio Zuk dakizun hori zure hitzen zain dago aspalditik.

Sagitaris Ez ezazu lasai hartu ikasturtearen hasiera.


Capricorn Alaitasun apur bat eman beharko diozu gorputzari.

Aquarius Lagun berri eta zoragarrri bat egingo duzu laster.

Piscis Zaindu eztarria neguko gau hotzetan.

Etxe Aundi
Hotela**  Jatetxea

Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



*Gaur ez bada,
bihar
ezkonduko
zara...
Etxe Aundin
zure zain
gaituzu.*

Exkixu taldeko Alex, Lotsa Barik saioan

Maier Urangak eta Nerea Barrutiak euskal musika talde ezagun bateko kantaria aurkeztuko ditugate datorren asteazkenean: Exkixu taldeko Alex. Makina bat galdera egingo dizkiote bi neskato hauek kanta-riari eta Alexek bere taldearen non-dik norakoak kontatuko ditu. Aste-azkenean 9.30etan beraz, Maier, Nerea eta Alexekin zita ATBn.



Asteazkenean musika ATBn

Datorren asteazkenean, gaueko 9.30etan, urriaren 12an Udalatxeko gurutzeen 25. urteurrena zela eta Amaia Antzokian egindako jaialdia eskeiniko da ATBn. Goikobalu eta Arrasate Musikaleko Bandak, Juanito Arzamendiren

zuzendaritzapean, Udalamendi eta Txanton Piperri obrak interpretatu zituzten. Ondoren Lore Gazteak dantza taldearen saioa eta ASA taldearen diapositiba emanaldiak izan ziren. Jaialdian egoteko aukerarik izan ez bazenu, orain ATBn ikusi ahal izango duzu.

ARRASATE IRRATIA (FM 107,7)

Aste honetan azpimarratzeko pare bat gauza Arrasate Irratian: batetik Adi Egon saioa, ostegun gauean, bertan itxurari buruz hitzegingo dute eta; bestetik, KGB programa, lehiaketa orain-

dik martxan dagoela esateagatik. Bestalde, zuzeneko emanaldi baten berria ere eman behar: Zoroklasi-koak saioaren barruan, Udalatx eguneko kontzertuaren grabaketa.

SOLUZIOAK

Horizontalek: 1. Txusma. 7. Re. 8. Ausaz. 10. Ahabide. 12. Bankari. 13. Akter. 14. Ga. 16. Tosta. 17. (Aid) Pa. 18. Ur. 19. Akzio.

Bertikalek: 1. Trabaru. 2. Xeha-kor. 3. Salkeia. 4. Mubarak. 5. Asir. 6. EZE. 9. Adigar. 11. Anis. 15. Apo. Agentzako dilema.

Jeroglifikoa:

PROGRAMAZIOA



18 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
Gaiak: AKEL.

21 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Astebete errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
Erreportaia: Fidel
Berecibar futbolari ohia.

22 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Mondrasport errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Lotsa Barik
Gonbidatua: Alex, Exkixu taldekoa

23 Asteazkena

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Lotsa Barik errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Musika
Udalatx Eguneko Amaia
Antzokiko jaialdia
Goikobalu, Arrasate
Musikaleko Banda, Lore
Gazteak.

24 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Musika errep.
19.10etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Kukaratxa Motel

25 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Kukaratxa Motel errep.
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

Etxebizitzak

- **Erdialdean garage itxia alokatzen da.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 42 13.
- **Donostiako Amara Zaharreen** pisua osatzeko neska bat behar da. Tfnoa: 79 82 47. Amaia.
- **Jendea behar da** Leioako Unibertsitatetik oinez zazpi minutura dagoen txalet baten logela merke bat hartzeko. Tfnoa: 78 31 10.
- **Iruñan pisua osatzeko** pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 51 04. Leire.
- **Arrasaten edo inguruan** jantzita dagoen pisu bat alokatu nahi dut. Tfnoa: 79 57 64. Sandra.
- **Donostiako Antiguoa** pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. Tfnoa: 77 00 29 (Josefa) edo 76 44 82 (Jon).
- **Esperientziadun klinika laguntzaileak** umeak edo helduak zainduko litzuzke. Tfnoa: 79 34 09. Amaia.
- **Lokala alokatzen da.** 70 m². Ura eta argiaz. Tfnoa: 79 76 95.
- **Pisua osatzeko pertsona bat behar da** San Andres auzoko Errebuelta kalean. Tfnoa: 86 07 86. Alaitz.
- **Arrasateko erdialdian logelak alokatzen dira.** Deitu 79 87 59ra 12etatik 5etara eta 7etatik aurrera.
- **Roneoko lehenengo solairuan** garaje itxia saltzen da. Tfnoa: 79 18 70.
- **Erguin kalean lokal bat salgai.** Tfnoa: 79 18 70.
- **Pertsona bat behar da pisua osatzeko,** gela babaka izango luke. Bañez doktorea, 2. 3. ezk., interesatuak arratsaldez pasatu.
- **Pisua salgai Uribe auzoan.** 8. zkia. 4. A. Tfnoa: (945) 44 50 64.
- **Erdiko kalean** pisu bat alokatzen da: 79 18 06.

Lana

- **Neska prest umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 67 30.
- **Esperientziadun neska lizentziatuak** klase partikularrak emango litzuzke. OHO, BBB eta BUP. Tfnoa: 79 48 83.
- **Neska euskaldunak** astegunetan gauzez taberna lan egingo luke. Tfnoa: 79 10 57.
- **Magisteritza daukan neska batek** OHOk klase partikularrak emango litzuzke. Euskaraz edo erdaraz. Tfnoa: 77 10 21.
- **OHO, REM eta BUPeko** klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 12 91. Alaitz.
- **FP2 elektronikako klase partikularrak** hartuko nituzke. Dei egin 16.00etatik aurrera. Tfnoa: 76 16 32.
- **Klase partikularrak** ematen ditut Musakolan. Tfnoa: 79 35 24.
- **Umeak zaintzeko** eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tfnoa: (907) 74 21 00.
- **Magisteritza daukan neska batek** lehen hezkuntzako eta DBHko lehen eta bigarren mailako klase partikularrak emango litzuzke. 79 26 36. Rakel.
- **Esperientziadun neska** umeak eta nagusiak zaindu eta etxeko lanak egun osoz edo orduka lana egiteko prest. Mirian, 79 31 44.
- **Neska batek lana egingo luke** arratsaldeko 3etatik aurrera, etxeko lanak egin, umeak edo nagusiak zaindu... 79 93 17.

Salerosketak

- **BX-GT gorria salgai,** BI-AK. 150.000 pta. Tfnoa: 79 42 65. Andoni edo Konsuelo.
- **Seat Ronda SS-V salgai.** 75 zaldikoa eta egoera onean. Tfnoa: 79 15 96.

- **Sonola akordeoia salgai.** 120 baxu, boiekin eta ia berria. Tfnoa: 78 14 72.
- **Auto bat salgai:** SS-S Toyota 505 Turbo. Tfnoa: 76 30 01.
- **Bigarren eskuko bizikleta** estatiko bat erosiko nuke. Tfnoa: 79 79 62
- **Trialsineko bizikleta salgai (Monty)** oso egoera onean, freno hidrauliko eta gauza berri askorekin. Tfnoa: 79 40 53. Zigor
- **Italbar markako izotz kubitoak egiteko makina salgai.** Berri berria dago. 79 51 34.
- **R11 TXE gorria salgai.** Egoera onean. Tfnoa: 79 43 46. Mikel.

Denetarik

- **Aurreko larunbat gauean** zilarrezko pultsera (hostoekin) galdu nuen. Tfnoa: 79 40 79 edo AEDra eraman.
- **Maritxu Kajoi gauen** Larrigain eta Etxeazpia kale tartean emakumezko eskularru batzuk galdu nituen. Narruzkoak eta beltzak. Aurkitu badituzu dei egin mese-dez 79 83 63. Marian.
- **Lau lagun behar dira futbitoko** taldea osatzeko. Ostegun arratsaldetan jolasteko Kiroldegian. Dei egin gaueko 8etatik 9etara 79 93 86 tfnoa.
- **Bi katakume** oparitzen ditut. 945 - 44 50 05
- **Bergara-Donosti,** arratsaldeko 5etan joan edo gaueko 10etan etortzen bazara, zurekin gasolina konpartituko nuke. Tfnoa: 76 46 26 (Nekane).
- **Zure artista sena** ezagutzera eman nahi badituzu (musika, mimika, malabarismoa) bakarka edo taldean, deitu 79 75 93 edo 79 67 12 telefonoetara.
- **Igandean Nafarroa Oinezera** joan zen AEDren autobusean hainbat gauza agertu ziren: makuto berdea, txamarra baten mangak, eta Los Panchosen zinta bat. Zureak badira pasatu AEDtik jasotzera.

Aste Gazte

Bekak

• "Eusko Ikaskuntzak" hainbat beka kaleratu du. a) Dokumentalista lanetarako 3 beka. b) "Euskal Autonomi Elkarte, Nafarroako Komunitate Foroa eta Akitaniako kulturari buruzko datu basea: XX. mendearen lehen-erdiko prensa" proiektua burutzeko 7 beka. Epea: urriak 25.

• 1997-98 ikasturtean atzerrian goi mailako ikasketak zabaltzeko beken deial-

di batzuk kaleratu dira jada-nik. Informazio gehiago, Gazte Bulegoan.

Lana

- **Osakidetzak,** Galdakako Ospitaleko kudeaketa, antolamendu eta informatikako zuzendariorde lanpostua kaleratu du. Epea: urriak 25.
- **Jaurlaritzako Hezkuntza** Departamenduak ordezkapenatarako zerrendak ireki

ditu, Arte Ederrak, injinerutza eta Irakaskuntza Ertainetarako. Urriaren 14tik aurrera.

Ikastaro gazteak

• **Gazte Zerbitzuak** antolatutako txalaparta, argazkigintza eta dantza karibearrak (salsa, merenge eta bachata) ikastaroetan esku hartzeko epea zabalik. Informazio gehiago, Gazte Bulegoan.

Lehiaketak

• "Fotogazte" argazki lehiaketa kaleratu du Bilboko Udalak. Lanak aurkezteko epea: azaroak 15.

"Edozein modutan ere, mesfidantzak salbatu ninduen benetan ederra eta argia zen gaztearengandik"

LAWRENCE DURREL
"BALHAZAR"

Informazio gehiago:
GAZTE
ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

EZ DAGO KONPARAZIORIK



omu

keramikak

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tfnoa/Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otalora, 1 behea • Tfnoa: 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuenak dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile eksklusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektua. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 atean eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea eksklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL


TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Ofiziala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.